



Arartekoaren 2018S-1290-17 Ebazpena, 2018ko irailaren 10ekoa. Horren bidez, Gasteizko Udalari iradoki zaio berrazter dezala herritar bati gizarte-behar larrietarako laguntza bat ukatu izana, eta hobetu dezala arrazoien atala, erabaki hori hartzea ekarri duten zuzenbideko oinarri zehatzak aipatuz.

Aurrekariak

1. Elkarte batek kexa bat aurkeztu du, etxebizitzaren alokairua ordaintzeko prestazio ekonomikoak ukatu dizkieten familia bat ordezkatur.

Gasteizko Udalak prestazio ekonomikoak, hain zuzen ere alokairuari dagozkionak, ukatu dizkio interesdunari, etxebizitza berean erroldatu dituelako bizikidetz-unitateko alaba bat, bai eta haren bi seme-alaba adingabeak ere. Familia horrek laguntzak jaso zituen aurretik.

Alaba Kanarrietatik etorri zen Gasteizera, aitak behin eta berriro eskatu ziolako berarekin bizitzera etor zitezene hura eta seme-alabak. Gizarte-behar larrietarako laguntza –alokairua ordaintzekoa– ukatzeko 2017ko apirilaren 25ean emandako ebazpenean arrazoi hau ageri da: *“alojamiento inadecuado: más personas empadronadas que número de habitaciones disponibles”*. Han adierazi da Gizarteratzeko eta Diru-Sarrerak Bermatzeko Legea (18/2008, abenduaren 23koa), urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretua eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2011ko azaroaren 28ko Agindua –gizarte-behar larrietarako laguntzak arautzen dituen– aplikatu direla.

2. Arartekoak izapidetzeko onartu zuen kexa, eta, ondoren, Gasteizko Udalari eskatu zion jakinarazteko zergatik erabaki zuen familia horri prestazio ekonomikoak etetea. Gasteizko Udalak txosten bat bidali dio erakunde honi, eta, horren bidez, adierazi du familia horrek elikagaien udal-prestazioa duela aitortua uztailetik irailera (570 euro hilean). Udalak azaldu du gizarte-behar larrietarako laguntzak ukatu dizkietela jo dutelako bizitokia ez dela egokia. Izan ere, 60 metro karratuko etxebizitza batean bizi dira 9 pertsona.

Txostenaren arabera, laguntzaren eskatzaileei aurretik jakinarazi zitzaizkien bizitokia ez zela egokia han bizi diren bi familia-unitateentzat. Alabak Kanarrietan geratzeko aukera zuen, han lana baitzuen eta seme-alaben aitak mantenu-pentsioa ematen baitzion, edo, bestela, Gasteizera bizitzera etortzea erabakitzen bazuen, beste bizitoki bat bilatzen lagunduko ziotela adierazi zitzaion. Gainera, adierazi zen alabak esan zuela Kanarrietara itzuli nahi zuela, han lan egiteko aukera gehiago zituelako.

3. Erantzunean adierazitakoa aintzat hartuta, Arartekoak informazio gehiago emateko eskatu zuen, eta aldeztu aurretiko gogoeta batzuk egin zituen (horiek jarraian ageri dira, beraz ez ditugu errepikatuko).



Informazio-eskaerari erantzunez, Gasteizko Udalak txosten bat bidali digu, eta, horren bidez, bere iritzia berretsi du, hots, berriz ere esan du, bere ustez, egokia dela gizarte-behar larrietarako laguntzak ukatzeko erabakia. Dioenez, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari galdetu zion gizarte-behar larrietarako laguntzak baloratzeko irizpidea egokitzeko aukeraren inguruan, eta Eusko Jaurlaritzak babestu egin zuen hartutako erabakia. Erantzun horren arabera, erabakiari eusten dio udalak, 4/2011 Dekretua, urtarrilaren 18koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzkoa, aldatu zuen urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuaren 21.1. artikuluko xedapenean oinarrituz.

“Las ayudas de emergencia social se concederán, en todo caso, previa comprobación por parte del servicio social de base referente de la existencia de una situación real y urgente de necesidad y la idoneidad de estas ayudas para abordar dicha situación, y de la existencia de crédito consignado para esa finalidad. A la hora de valorar desfavorablemente la idoneidad de las ayudas para paliar la situación de necesidad en el caso concreto, se atenderá especialmente a la existencia de circunstancias o antecedentes que revelen el riesgo de que vaya a realizarse un uso indebido de las mismas o incompatible con su finalidad”.

Helarazitako txostenean nabarmentzen da oso garrantzitsua dela diru-laguntzak egokiak diren baloratzea, eta gizarte-langileek funtsezko eginkizun profesionala betetzen dutela balorazio horretan. Hortaz, jotzen da aldarrikapen hori dela Eusko Jaurlaritzak sartutako berrikuntzetako bat.

Gogoetak

1. Honako hauek arautzen dituzte gizarte-behar larrietarako laguntzak: Gizarteratzeko eta Diru-Sarrerak Bermatzeko Legeak (18/2008, abenduaren 23koa), eta urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuak aldatutako Gizarte-Larrialdietarako Laguntzei buruzko Dekretuak (4/2011, urtarrilaren 18koa). Araudi hori agindu batek osatzen du urtero —kasu honetan 2017ko martxoaren 8ko Aginduak, Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburuarenak—. Horren bidez, 2017. urtean gizarte-behar larrietarako laguntzetako gastu espezifiko bakoitzeko gehienez eman daitezkeen diru-kopuruak eta laguntza horietarako ezarritako kredituak banatzeko irizpideak finkatzen dira; eta, horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko, udal eta mankomunitate bakoitzarentzat 2017. urterako aurrekontu-mugak finkatzen dira.

Aipatutako araudiaren 5.1. artikuluan laguntza horien onuradun izateko betekizunak ezarri dira. Dekretuaren azken idazketaren (16/2017 Dekretua) 2. apartatuan honako hau xedatzen da: *“Ezin izango dituzte baliatu alokairu-gastuak edo ohiko etxebizitza edo bizilekua erosteko hartutako kredituen interesetatik edo amortizaziotik eratorritako gastuak ordaintzera bideratutako gizarte-larrialdietarako laguntzak, eskatzaileak edo haien bizikidetzak-unitateko beste edozein kide honako egoera hauetakoren batean baldin badago:*

- a. *Etxebizitza bat alokairuan edo jabetzan du, eta, eskabidea egitean indarrean dagoen legediaren arabera, etxebizitza hori babes publikoko etxebizitza-motaren batekoa da, Eusko Jaurlaritzak, beste administrazio publiko batzuek edo administrazioaren mendeko entitateek sustatua. Egon daiteke salbuespenik, baina dena delako udalerriko oinarriko gizarte-zerbitzuek esan beharko dute salbuespena dela, eta, egiaztatzeko, eskabide-espeditenteari txosten soziala erantsi beharko zaio.*
- b. *Etxebizitza bat jabetzan edo usufruktuan du eta gizarte-larrialdietarako laguntzak eskatu ditu beste etxebizitza baten alokairu-gastuei aurre egiteko, azken hori haren ohiko bizitokia izanda ere, salbu eta banantzeagatik edo dibortzioagatik eta beste arrazoi batzuegatik, hala nola utzarazpena, beren ohiko bizilekua utzi behar izan duten edo etxeko indarkeriaren biktima diren pertsonak badira, besteak beste.”*

Apartatu horren arabera, erroldatutako pertsonen kopurua gelen kopurua baino handiagoa izatea ez da eskaera ukatzeko arrazoia. Beste artikuluko batzuetan ere ez da inguruabar hori aipatu. Badaude beste xedapen batzuk, hala nola 4/2011 Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoa, onuradun bat baino gehiago dauden kasuak arautzen dituztenak. Araudi hori ere ezin da aplikatu, hauxe baita ezartzen duen gauza bakarra: etxebizitza berean bizi diren bizikidetzak-unitateei, gehienez ere, gizarte-behar larrietarako bi laguntza eman dakizkiekeela. Halaber, ezarri da, etxebizitza berean bizikidetzak-unitate bi edo gehiago bizi badira, eta beren artean ahaidetasun-harremana badago, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9.2 artikuluko a) eta b) apartatuaren adierazitakoari jarraituz, unitate bati bakarrik eman ahalko zaizkiola alokairu-gastuak edo ohiko etxebizitza edo bizitokia erosteko hartutako kredituen interesetatik edo amortizaziotik eratorritako gastuak ordaintzeko gizarte-behar larrietarako laguntzak.

Hortaz, araudiak xedatzen du gizarte-behar larrietarako laguntzak alokairu-gastuak ordaintzeko emango direla, nahiz eta etxebizitza berean beste bizikidetzak-unitate bat egon, unitateen artean ahaidetasun-harremana egon ala ez.

Betebeharrei buruzko araudia ere aztertu da, eta ez da hauteman ez-betetzetik egin denik. 4/2011 Dekretuaren 7. artikuluko arautzen ditu onuradunen betebeharrak, hala nola gizarte-behar larrietarako laguntzak eskatu zaizkion udalari jakinaraztea laguntza horiek jasotzeko betekizunak betetzeari eragin diezaioketen gertaerak. Kexagileek jakinarazi zuten familiarekin ahaidetasun-harremana zuen beste bizikidetzak-unitate bat etxebizitza berean biziko zela; hortaz, bete zuten aldaketa oro jakinarazteko betebeharra.

2. Gizarte-behar larrietarako laguntzak erregulatzen dituen araudian ezarritako betekizunetan ez da sartzen etxebizitzaren logela-kopuruaren eta han erroldatutako pertsona-kopuruaren arteko korrelaziorik egon behar duenik.

Bestalde, Gizarte Politiken eta Osasun Publikoaren Sailaren udal prestazio ekonomikoen programa arautzen duen ordenantzak, 2017ko uztailaren 21ean onartutakoak, ere ez du esaten korrelazio hori betekizunetako bat denik (6. art.). Han berariaz adierazi da pertsona bat baino gehiago elkarrekin bizi daitezkeela baldin eta horien artean ahaidetasun-harremana badago.

Hona hemen gizarte-behar larrietarako laguntzen definizioa: *“aldian-aldian emango ez direnak, eta haien hartzaileak hauek izango dira: gizarte-bazterkeria prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezko diren gastu espezifikoak, ohikoei nahiz ezohikoei, aurre egiteko behar beste baliabide ez duten pertsonak.”* (Gizarteratzeko eta Diru-Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 44. artikulua).

Prestazio ekonomikoen helburua da gizarteratzea edo autonomia erraztea, bai eta larrialdiko edo gizarte-premiako egoeren ondorio ekonomikoak estaltzea edo arintzea ere (Gizarte Zerbitzuen Legearen 16.2 a) art.).

Horrenbestez, egungo arau-esparruak ez du ezartzen prestazioak ukatzeko edo eteteko arrazoia denik etxebizitza berean pertsona ugari egotea elkarrekin bizitzen. Aitzitik, honako helburu hau dute prestazio ekonomikoek: *“gizarte-marjinazioko egoerak prebenitzea, saihestea edo arintzea”, “gizarteratzea edota autonomia erraztea” eta “larrialdiko edo gizarte-premiako egoeren ondorio ekonomikoak estaltzea edo arintzea”.* Izan ere, inguruabar horrek adierazten du interesduna prekariedadegoeran dagoela, eta horrek justifikatzen du esku-hartze sozial bat egitea, pertsona horren autonomia handitze eta bizileku- zein bizikidetz-egoera hobetze aldera.

3. Beraz, gauza bakarra egin dezakegu: gizarte-zerbitzuek duten baloratzeko ahalmenari buruzko xedapenetara jo; Gasteizko Udalak ere xedapen horiek aipatu zituen bere txostenean. Horri dagokionez, araudi berriak balorazio horren eginkizuna indartu du, 2.3. artikuluan (16/2017 Dekretuak gehitu zuen artikulua hori) honako hau jasoz: *“Era berean, gizarte-zerbitzuen balorazioaren arabera erabakiko da ematea edo ez, dekretu honetako 10. artikuluko 1.c paragrafoan eta 21. artikuluko 1. paragrafoan zehazten den bezala”.*

Aipatzen dituen artikuluek hauxe diote:

“10. artikulua.- Eskaera bakoitzeko gehieneko zenbatekoa. c) Gizarte-zerbitzuek ondorengoak egiaztatzeko egiten duten balorazioa: gastua benetan beharrezkoa den, laguntza-premia duten pertsonak gizarteratzen laguntzeko garrantzitsua den edo lehentasunezkoa den”.

21.1. artikulua (16/2017 Dekretuak emandako idazketan): *“Gizarte-larrialdietarako laguntzak eman aurretik, erreferentziatzeko oinarritzko gizarte-zerbitzuak kasu guztietan egiaztatu beharko du benetako premia-egoera dagoela eta laguntza horiek egokiak direla egoera horri aurre egiteko; era berean, helburu horretarako kreditua ezarrita dagoela ere egiaztatu beharko da. Laguntzak ematea premia-*

egoerari aurre egiteko desegokia dela baloratzeko, kontuan hartuko da, bereziki, inguruabarrak edo aurrekariak egotea, adierazten dutenak arriskua dagoela laguntzon erabilera okerra edo xedearekin bat ez datorrena egiteko.”

Gizarte-zerbitzuen eginkizuna da balorazioak eta diagnostikoak egitea, premiak eta egoerak identifikatzeko eta neurtzeko aukera ematen duten tresnak erabilia. Diagnostikoa da iritzi profesionalaren oinarri, eta iritzi horren arabera aitortu ahalko zaio prestazio ekonomikoa pertsona bati, kasu honetan bezala.

Pertsonen beharren eta inguruabarren diagnostikoa, balorazioa eta ebaluazioa egiteaz gain, esku-hartze sozialeko prozesu batean hartzen dute parte zerbitzu horiek, artatutako pertsonarekin lotura bat sortzen baitute, helburu jakin batekin.

Bai Gizarte Zerbitzuen Legearen 7. eta 9. artikuluek eta bai 185/2015 Dekretuaren (urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa) 12. artikulua zenbaitetan esaten dute oso garrantzitsua dela pertsonen parte hartzea.

Legeak (25. art.) ezartzen du prestazio horiek eskuratzeko betekizunetako bat dela prestazioak behar bezala betetzea onuradunaren beharrak eta erreferentziazko profesionalaren preskripzio teknikoa, eta kasuan kasuko inguruabarrak justifikatu beharra ezartzen du. Zorroari buruzko Dekretuaren 12.5. artikulua hauxe dio: *“Baliabidea ezartzeko, erreferentziazko profesionalak erabiltzailearen partaidetza izango du eta profesionalak kontuan izango du erabiltzaileak bere kasurako egokiena den zerbitzua –eta, hala badagokio, modalitatea– modu librean aukeratzeko eskubidea duela, baliabidearen eskuragarritasunaren arabera eta profesionalaren orientabidea eta preskripzio teknikoa aintzat hartuta, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 9.1 artikulua k letran aurreikusitakoaren arabera*

Halaber, profesionalak faboratuko du, betiere egokia bada, erabiltzailea bere ohiko ingurunean egotea ahalik eta gehien ahalbidetzen duen arreta eskaintzeko alternatiba edo alternatibak lortzea, betiere hori aukeratzeko badu, eta justifikatu egin beharko du ez dagoela erabiltzaileari betiko ingurunea utzarazi beharrik gabe arreta eskaintzeko beste modu egokirik, betiere Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 25.1.c) letran aurreikusitakoaren arabera.

Gauzak horrela, sustatuko du pertsonen: a) beren bizitzari lotutako erabakiak hartzeko ahalmena erabiltzea, beren bizilekua eta non eta norekin bizi nahi duten hautatuz, bizitza-sistema espezifiko baten arabera bizitzera behartuta egon gabe; b) eta beren komunitatean bizitzeko eskubidea baliatzea, baldintza eta aukera berdinetan, komunitate horretan erabat sartuta eta partaidetza aktiboa izanik, erabiltzailea komunitate horretatik isolatzea edo bereiztea saihestuz. Horretarako, ahalbidetuko du pertsonen laguntza formalak izatea (Prestazio eta Zerbitzuen Zorroan aurreikusitako zerbitzuen eta/edo prestazio ekonomikoaren artetik, betiere pertsona horrek haiek baliatzeko eskubidea badu) beren eguneroko bizitzako



jarduerak garatzeko eta beren autonomiari eusteko, berreskuratzeko edo handitzeko, ahal den neurrian”.

Araudiak, ikusi denez, udaleko gizarteko zerbitzuen balorazioa babesten du, baina balorazio horrek jaso behar ditu (21.1. artikulua, 16/2017 Dekretuak emandako idazketaren arabera):

- gastua benetan beharrezkoa den;
 - benetako premia larriko egoera dagoen;
 - egokia den [horretarako kontuan hartu behar ditu pertsonaren partaidetza eta non eta norekin bizi nahi duen aukeratzeko gaitasuna, bizitza sistema espezifiko baten arabera bizitzera behartuta egon gabe (Zorroari buruzko Dekretuaren 12.5. artikulua)];
 - premia egoeran dauden pertsonak gizarteratzen laguntzeko garrantzitsua eta lehentasunezkoa den;
 - horretarako kreditua esleituta dagoen;
 - ez ote dagoen zantzurik hura behar ez bezala edo xedearekin bateragarria ez den moduan erabiliko dela pentsatzeko.
4. Gizarte larrialdietarako laguntzak ukatzeko ebazpenaren arrazoiketan ez da aipatzen gizarte zerbitzuen baloraziorik eta diagnostiko bat dagoenik.

Erakunde honek egindako laguntza-eskaerari erantzuteko igorri den txostenean, honako hau aipatu da berriz: gizarte zerbitzuen erabakia izan dela eta datu gisa adierazi da alabak esan duela, gizarte zerbitzuetan egindako elkarrizketa batean, Kanarietara itzuli nahi duela edo Kanarietan lan egiteko aukera handiagoa duela. Halaber, jakinarazi zen pertsona horrek Gasteizen bizitzea erabakitzen bazuen, beste bizileku bat topatzeko laguntza emango zitzaiola. Nolanahi ere, ukatzeko ebazpenean erabakia justifikatu da: *“alojamiento inadecuado: más personas empadronadas que número de habitaciones disponibles”*.

Arartekoak gizarte larrialdietarako laguntzaren beste ukatze bat aztertu du berriki; bertan, hobetzeko tarte zegoela ere iritzi zen Arartekoaren ebazpena, 2018ko apirilaren 13koa. Horren bidez, Gasteizko Udalari iradokitzen zaio gizarte larrialdietarako laguntzak ukatzeko arrazoiak berriz azter ditzala.

Administrazio ebazpenean arrazoiketak duen garrantzia ere aipatzen zen bertan; horren bidez, prestazio ekonomikoa ukatzea erabaki da. Edozein administrazio egintzaren arrazoiketa edozein administrazio egintzaren funtsezko betekizuna da, hura fiskalizatzen eta pertsonen babesgabetasuna saihesten uzten baitu. Arrazoi hori dela-eta, araudiak eskatzen du eskubide subjektiboak edo legezko interesak mugatzen dituzten administrazio egintzek egitateak eta zuzenbideko oinarriak labur-



labur jaso behar dituela (39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoaren, 35. artikulua).

Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salako (Hirugarren Atala) 2012ko maiatzaren 31ko epaian, 3090/2011 zenbakiko kasazio errekurtsua, honako hau adierazten da argi eta garbi: *"en materia de subvenciones y ayudas públicas, la obligación de motivar ha sido constantemente reconocida por las numerosas Sentencias que hemos dictado sobre la denegación de subvenciones como la de autos; en los correspondientes recursos se ha podido debatir sobre el mayor o menor grado de suficiencia de la motivación, en concreto, pero nunca se ha dudado de la exigencia de ésta, en sí misma considerada"* (Sentencia de 29 de noviembre de 2001, RC 3563/1995 , luego reproducida en la Sentencia de 23 de enero de 2002, RC 5353/1995).

Ya la Sentencia de 18 de enero de 1996 (RCA 7488/1992) declaró que "la jurisprudencia (Sentencias, entre otras, de 10 marzo 1969 y 29 noviembre 1985), había incluido como actos necesitados de motivación adecuada los dictados en ejercicio de potestades discrecionales, como es el caso de las subvenciones y ayudas públicas, dado que sólo a través de una congrua motivación puede la jurisdicción ejercitar con garantía su función fiscalizadora (control de hechos determinantes, aplicación correcta o valoración correcta de los intereses en juego, etc...), lo que obliga a entender como precisado de adecuada y suficiente motivación el acto impugnado, máxime cuando, aun siendo normas posteriores y no aplicables al caso pero que sí aportan un criterio orientador que no debe desdeñarse, el artículo 54.1 de la Ley 30/1992 , en su apartado f) comprende como necesitado de motivación a los actos discrecionales, y disponiendo el artículo 6.2 del Real Decreto 2225/1993, de 17 diciembre , aprobatorio del Reglamento de Procedimiento para la concesión de subvenciones públicas que la resolución será motivada. No cabe, pues, exonerar al Órgano Constitucional demandado, como a ninguna de las Administraciones Públicas en su función de fomento, al otorgar o resolver sobre ayudas públicas o subvenciones, de su obligación jurídica de motivar, fundándola adecuadamente en derecho y conforme a las circunstancias fácticas en presencia, las resoluciones que dicten en esta materia".

El requisito de motivar los actos de concesión o denegación de subvenciones constituye actualmente una constante de la jurisprudencia (Sentencias de 15 de abril de 2002, RC 1410/1996, 20 de mayo de 2002, RC2531/1996, 11 de julio de 2006, RC 1706/2004 , 24 de junio de 2008, RC 6098/2005 y 30 de enero de 2012, RCA 318/2010 , por citar algunas de las muchas que aplican este criterio)".

Gizarte larrialdietarako laguntzak emateko erabakiak eskumeneko ahalmena gauzatzea dakar; beraz, jurisprudentziari erreparatuz beharrezkoa da hura arrazoitzea (Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salak 2002ko abenduaren 30ean emandako epaia, 4662/98 zenbakiko errekurtsua).

“Y llegados a este punto, procede estimar el motivo de recurso expuesto en la demanda; el Negociado de Promoción Social y Desarrollo Comunitario del Ayuntamiento de San Sebastián que resuelve el expediente no cumple con el deber de motivar su decisión fundándola adecuadamente en derecho conforme a las circunstancias fácticas concurrentes que, en este caso, le imponía no sólo el art. 54.1 f) de la Ley 30/92, al estar ejerciéndose una potestad discrecional, sobre cuyo ejercicio el Tribunal Supremo señala con reiteración que resulta aún más injustificable una falta de criterio o razonamiento, sino el apartado c) del artículo citado al separarse del criterio del informe consultivo que le precede. Por lo que el acto impugnado debe anularse”.

5. Arartekoak badaki udaleko gizarte zerbitzuek zer-nolako lan bikaina egiten duten pertsonen beharrezko erantzuteko; hala, bertako langileak nahiz beste gizarte erakunde batzuk asko inplikatzeko dira, eta horri esker, Gasteizen bizi diren pertsonen bizitza duina izan dezakete. Gasteizko Udaleko gizarte zerbitzuak nabarmentzen dira aurrera eramaten dituzten programengatik, beren ezagutzagatik eta bideratzen duten aurrekontuagatik. Arartekoak, horregatik, inplikazio hori aitortu behar du; hala ere, **gizarte larrialdietarako laguntzak ukatzeko ebazpenen arrazoiak hobetzeak garrantzi handia duela azpimarratu du**. Hori dela-eta, uste du zuzenbidearekin bat ez datorrela gizarte larrialdietarako laguntza bat ukatzeko arrazoi izatea honako honi erreferentzia labur bat egitea: **“alojamiento inadecuado: más personas empadronadas que número de habitaciones disponibles”**. Ez dirudi hori justifikazio egokia denik gizarte bazterkeria egoeran dagoen familia batek eskatutako laguntzak ukatzeko edo eteteko.

Baina ez da nahikoa ere ukatzeko ebazpenean jasotako zuzenbide-oinarri gisa honako hauek aipatzea: Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea, urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretua eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2011ko azaroaren 28ko agindua, gizarte larrialdietarako laguntzak arautzen dituen, betetzat jotzen ez den artikulua zehaztu gabe.

Baina, erakunde honetara igorritako txostenean aipatzen den moduan, erabakia udaleko gizarte zerbitzuen diagnostiko edo balorazioan oinarrituta badago, 21.1. artikulua aipatutako arrazoiak jaso beharko lirarteke (16/2017 Dekretuak emandako idazketaren arabera), edo bestela, txosten bat (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 88.6. artikulua). Halaber, adierazi behar da esku-hartze sozial bat egiten ari dela familia horren gizarteratzea edota autonomia errazte aldera.

Arartekoaren ikuspegitik, badirudi ez dela egokia laguntzak ez onartzeko erabakia justifikatzea zailtasun eta ahultasun egoera bat baino adierazten duen arrazoi batean ebazpenean honako hauek arrazoi gabe: **beste esku-hartze edo orientazio sozialen bat, erabakia justifikatzeko balio duten beste zenbait gertaera, eta berriaz betetzen ez den zuzenbide-oinarria**.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoarekin arabera, Gasteizko Udalarik honako iradokizun hau egiten zaio:



IRADOKIZUNA

Arartekoak iradokitzen du gizarte larrialdietarako laguntzen eskaera ukatzeko erabakia berriz azter dadila eta arrazoiketa hobetu dadila euskarri duen berariazko zuzenbide-oinarriak jasoz.

